

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

120n. Zenbakia

Bagilla  
Ekainilla  
1988



**MUNGIA: JIAK**

- Kepa deuna zaindari
- Erria alai ta dantzari

## EUZKOTARROK AIN BURRUKALARIAK!

Sarri-askotan ezin sinistu izaten dogu euzkotarrok ain burrukalariak izan garanik, nai-ta gaur-egun be ikusten doguzan alkarren arteko ulertu eziñak, naiko adierazoten dauskuen.

Ainbat geiago gure edestian, jazo diranak geure egiñk irakurri esketiño.

\* \* \*

### JAKINGARRIAK

Zailla da, guretzat beintzat, irakurritako guztia gomutan eukitea, baiña, or izaten doguz noizean bein jakitunago batzuk gure oldozmena berbiztutzeko, ea aztuta euki dogun zerbait azalduteko.

Esatebaterako, aintziñatik genduan irakurrita, zelango gudaketa odoltsuak izan ebezan azkenengo Karlo-tarren eta baltzen, "liberalen" artean Somorrostro aldean, baiña, ez gintzazan gogarutzen zein lekutan ez zein egunetan.

Ara non Euskerazaleak Bizkai'ko Aurrezkikutxa'n laguntzaz euzkal irakurleen eskuetan urtero ipinten dauskun Egutegi apain txukunean irakurri dogun, igaro dan Otsalla'ren 25'gn. Somorrostro orretan izan zan burruka, gudaketa odoltsu ori.

Orritxu orrek adierazoten dauskunez, burruka ori puntzet edo bayonetaz egin eizan eta, 2.000 "baltzak" eta 600 karlatar izan ei ziran bertan eraildakoak.

Zetan esan bere ez! karlatar geien-geienak euzkotarrak izango ziran eta "baltz" aretaiko asko be bai, azkenengo bertan izan genduban gudaketa madarikatuan be euzkotar asko aurkitu gintzazalako alderdi bietan.

\* \* \*

### BALTZAK ETA ZURIAK

Aldi artan, karlatarren gudaketan eta askotzaz geroago, gure aldira arte be, Somorrostro erri-batzar edo auzo-batzar zakaba zan. Gaurko Abanto-Zierbana, Gallarta eta Ortuella be Somorrostro lez ezagutzen ziran.

Balitzaken gaurko Muzkiz aldean izatea, bertan aurkitzen dalako aintziñako Muñatones dorre ospetsua, lenago be izanak ziralako dorre eta bere inguruan euzkotarren arteko burruka zitalik asko.

\* \* \*

### ATSIPETUAK

Aipatu dogun orritxu orrek diñozkuna da, "Carlos" bera be burruka orretan aurkitu zala, badezpadan urruntxutik ikusten eta leku ziurrean estalduta eta ez lenago Zumalakarregi gudalburu zintzoa egon zan lez gudaketa gogorrean sartuta.

Tamalez Zumalakarregi euzko-seme jatorra erail eben, ez beste ainbeste Carlos, nai-ta beste iñor baiño lenago bera, Carlos, erail ba'eben, ziurki mesede izango zan euzkotarrentzat, orduan be beste askotan lez, atsipetuak izan ziralako gure gurasoak.

\* \* \*

### ASKATASUN-BILLA

Egia da, euzkotarrok burrukalariak izan gara eta, bear dogun baiño geiago gara geure artean, baiña, zorionez iñoiz be ez besterik zapalduteko, geurea ez danaz, besteren burujabetza menperatzeko, beti-beti geure-geurea izan dan azkatasuna il edo bizi aldeztutzeko baiño. Txarrerako edo onerako orretarikoak gara eta, jarraitu daigun Euzkadi azke ikusi arte.

# MUNGIA

Mungia erri maitagarria da, baserria ta uria dan erria, zarra ta barria.

Laster doguz Mungia'n Kepa Deunaren jaiak. ZER onen bidez agertzen dauzaguz ba, erri maitagarri oneri gure maitasuna, esker ona eta gurari biziak.

\* \* \*

## POZA TA BEGIRATZEA

Erriko jaietan kalean geien ikusten dana, poza izaten da eta poz ori agertzeko izaten dira jaietako ekiñaldiak.

Baiña jaietan askori etorten jaku burura beste pentsakizun bat, beste barru-min bat be. Itaun onetara sartu lei pentsakizun ori: Len zelakoa izan zan eta gaur zelakoa da eta gero zelakoa izango da erria?

Begiratzea da ba jaien bigarren berezitasuna eta onexeri eskiñiko dauzaguz lerro idatzi apal oneik.

\* \* \*

## OGEI TA AMAR URTE

Orain ogei ta amar urte, edo geitxuago dirala egin genduan olako begiratze bat eta ondo daukagu gogoan orduan zer ikusten genduan: Mungia baserri-giroan bizi zan eta inguruko baserriak salerosketarako azokea euken erri onetan.

Ez egoan errian lantegirik eta lantegietara sartu-bearrean aurkitzen ziranak bultzia artu eta Bilbo'ra edo "erreka-artera" joan bear izaten eben.

Laster asi ziran, aldi orretan, lenengo lantegiak eta edozeiñek ikusteko lako gauzea zan "arkadia zoriontsua"ren azkena laster zetorrela. Onelan esan eban zurra zan orduko gotzaiñak: "Mungia'n langintza-moltzoa sortuko da laster eta moltzo ori ondo egokitua izan daiten alegindu bear gara, fede ta erri-arloan sendi-giroa nagusi izan daiten".

## KALEA TA BASERRIA

Kalea aurrera eta baserria atzera izan da Mungia'n lenagoko jokabidea. Burruka-antzeko bat ikusten izan da or.

Eta errez ulertzekoa da gorabera ori nondik sortu dan: Baserriak emon dauzan ondorenak urriak izan dira eta baserrian jakintzarako erreztasunik be ez zan emoten eta orregaitik, kaleak irabazten eban, lantegiak aurrera eta baserriak atzera doazela argi ikusten zala.

Baiña lanik-ezaren arazo larria sortu zanean, aurre-rapenak beste bide bat artu eban eta gaur baserrian bizi, baserriak txukundu eta soloaren laguntza ez galdu, dira erri onetan gurari biziak.

Orain alde biak doaz aurrera, baserriak txukuntasunaz jantzita kale-usaiñean eta kaleak eregintza barriakaz edertuta. Zori txarrez lanaren urritasunik ez dau izten larregi aurrera egiten, baiña len baiño giro itxaropen-tsuagoa ikusten da.

\* \* \*

## EROAPEN AUNDIA


Mungia'ren berezitasuna izan da zoritxar-aldian eroapen aundia eukitea eta ori baserria oiñarrian euki izatearen ondorena da.

Eroapena, pazientzia euki dau Mungia'k politika-arloko eraso gogorretan, eroapena baserriaren atzerakuntza aspergarrian, eroapena kulturaren aldatz-gora larrian, eroapena oraindiño be bizi-bizi dagoan langintzaren larrialdian.

Eta eroapena dauken erriak beti urteten dabe irabazle. Ez dira sartzen iraulketa aundi ta bildurgarrietara baiña bai eguneroko lan iraunkorrari eutsi eta astiro baiño ez ba'da be, beti aurrera egin. Ori izan da Mungia'ren jokabidea.

Jai zoriontsuak opa dautseguz Mungiar guztiai.

ZER



## EUTANASIA ETA ERITEGIAK

### ZER DAN

*Eutanasia* itzak auxe esan nai dau: nekeetan dagoen gaixoa iltzea, orretarako eriotza zuzenean dakarren zeredozer egiñez. Orrelako eutanasiarik ezin liteke ezelan be onartu.

ORI onartuko balitz, orduan gaisoak ez leuke geiago uste onik izango bere sendagillearengan; ez leuke jakingo zertarako emoten dautsozan sendagaiak, sendatzeko ala ilteko.

GAISOAK berak eutanasia eskatuko baleu be, bere naiari amor emotea, ori .berak bere burua ilteari laguntzea litzake. Orrelakorik ezin leiteke onartu.

Ez litzake eriotza ona (muerte digna); eraiketa ona baiño (asesinato digno).

*Eutanasia* beste era batera artzea, ez da benetako eutanasia eta ortik sortzen dira naikoa naaste. Esate baterako: gaisoari sendabide oso gaitzak eta kostosoak ez emotea; miña eta naigabea kentzeko lo-belarrak emotea naiz-eta bizia bide orretatik murriztu... Orrelakoak ez dira benetako eutanasia, eta erabilli leikez.

\* \* \*

### GAISO-ETXEAK

Gizakiak, ilteko era on baten eskubidea badau: ilteko era onik aurkitu baliteke, beintzat. Eriotza giza-maillakoa bear da eta eriotz-mota orreri deitzen dautsogu ERIOTZ ONA. Erderaz "muerte digna" esaten dana.

Gaisoeri buruzko egoera aldatu egin da aspaldian: oraindik urte asko ez dala, jenderik geiena etxean ilten zan; gaurko egunez, ostera, geienak, danak ez bada, eritegietan izaten dabe euren azkena.

Baiña, gaurko osategietan, eritegietan, ospitaletan jende-moltsoa batzen da eta gaisoak artaldean antzera. Sendagille, erizaille eta tartekoak be bardin, talde aundia osotzen dabe osategi bakoitzean.

Gaiso bakoitza egunero askoren eskuetatik pasako da eta inortok ez dau izango gaiso orren norkiaren ajolik. Bakoitzaren erantzunkizuna taldean urtutzen da eta gaisoa gelditzen da numero edo zenbaki bat lez, zerki bat lez. Zerki interresgarria (caso clinico) naiz arrunta: baiña zerki uts bat lez. Gaisoa ez da norki bat, persona bat, izango, bere senide eta lagunentzako ez bada.

Eritegiak, osategiak teknika-bideak ditu begien aurrean eta ikuspegi orretatik dator euren aurrerapena; baiña, gozotasunik gabe, maitasunik gabe, gizakitasunik gabe... Gai orretan ez du inork erantzunkizunik, ez eta ardurarik be.

\* \* \*

### BAKARTADEAN

Millaka gaixo daukazan eritegiak lantegi baten antza dauke: teknika onarekin lana saillean egin eta errez; baiña, sen-

dagille bakoitzak gaixo geiegi ikusiko dauz egunero eta gaixo bakoitzak sendagille eta gaiso-zain geiegi...

Danen artean gaixoa bere bakardadean bakarrik itziko dabe. Bere bildur, bere pena, bere buru-auste, bere larri-aldiakin bakardadean bakarrik... Eta eriotza ixilik elduko jako bere bakardade aretan...

\* \* \*

### ZER EGIN?

Ospital aundi batean azterketa bat egin eben gaisozaiñen artean: zelan gura zenduke il? Geienen erantzuna: —Neure etxean, nere senitartean, neure lagunen artean... Ez beintzat onelako ospital batean.

Elkarteak errua dau teknikaren ondoren ibilli eta beste bideak baztertuz; baiña, sendagilleak eurak be ilten dagoanarekin ez dakie zer egin, lo-belarra emon besterik, konortea eta burua galdu arazteko...

Sendagille-medikuekin batera, beste gaiso zaiñak jokaera berbera darabilte... Ez dakie il-zorian dagoanakin zer egin.

Soka orretan sartu leikez lagunak, senideak eta bear bada, kapeillauak berberak be bai. Ospitaleko giroak, moltsoan gaisoak egoteak, ez dau lan orretan laguntzen.

\* \* \*

### ERABI

Pelikula italiar baten Sofia Loren agertzen da ospital aundi bateko moja eta beragaz batera gaisozain komunista bat. Bien artean sortzen da burruka zeinnek gaisoeri obeto ilten lagundu.

Mojatxoak otoitzekin laguntzen eutsen il-zorian egozanai; komunistak barriz, bere inguruan egonez eta eskutik eldutz laguntzen eutsen bere kidekoaz eta bien-bitartean aukera kentzen entson mojatxoari laguntzera etortzeko.

\* \* \*

### BAZTERTU?

Gaur-egun sekula baiño bakarrago ilten jakuz gure gaisoak. Ordu larri orretan laguntzeko, lo-belarra beste biderik ez jako inori gogoratzen...

Eriotza eta gaisotasunak gorde eta ezkutatu; kendu geure begien aurretik. Bakea kentzen dauskue. Baztatu eta begien aurretik kendu.

Aztu zearo.

\* \* \*

### ARTZAIN-LANA

Gero, barriz, gure inguruan gaiso larri bat sortzen jakunean, ez dakigu berarekin zer egin be... Ez dakigu zelan lagundu eta zer joka-bide erabilli...

Illetak ondu dira eta edertu. Sail orretan pastolarak aurre-rapena egin dau; il zorian dagozenen pastorala, barriz, murriztu egin jaku.

Lana izaten eben orain urte batzuk dirala, parrokietak abadeak il-zorian egozan gaisoai laguntzen; gaur, barriz, erriko eriak ospitalera bialtzen ditue an bertan ilteko edo... Asmoa ori ez bada, benetan alaxe gertatzen da: geienak, danak ez badira, an ilten dira.

An, bere etxetik urrutian, bere girotik aparte, giro ori geien bear dabenean, orduantxe bialtzen ditue ara...

Erri txikietan izan oi ziran, garai batean, zerora antzeko andratxoak etxerik etxe ibilli oi ziranak il-aurreko orduetan gaixoeri laguntzen... areik be galdu jakuz... Bearrik be ez. Ez da iñor errian gelditzen ilteko.

\* \* \*

## ISILLEAN?

Gure gizarteak ez dautso eriotzari aurrez-aurre begiratu gura; iñondik be ez. Orrelan, gauzak eratu doguz, eriotza etxean gertatu ez dedin. Gorpua be, al bada, ospitalean euki illeta-orduraarte.

Illerriak urrutira eroan dira, garai batean eliz-ondoan egozanak, eta bertara gorpua eroatea be, isillean egin, gizartea konturatu ez dedin. EZ DAGIALA ERIOTZAREN ARRAS-TORIK BERE BEGIEN AURREAN IKUSI.

\* \* \*

## EUTANASIA

Gizakia ondorenak emoteko dago munduan jarria; produktibitateari goi-maillan eusteko... Gizona orretarako gauza ez danean, orduan ez da ezertarako... Eta ezertarako ez dana, erditik kendu... Ganbararik etxean bada, ganbarara jaso; ganbararik ez danean, zaborretara bota edo erre.

Eutanasia ez ote dogu ingumari orretatik sortua...? "*Eriotza egokia*" itza (muerte digna) erabilli oi da maiz eutanasia onartzeko; baiña, asieran esan dogun lez, eriotza egokiaren orde, erailtza egokia gerta litzake orrelan jokatuz: gizakia erail egokitasunez, dignidadez. Tranpakale. Gizakia erail eta geu lasai gelditu erailketaren ondoren... Ona orretarako, eutanasia gerta bide egokia.

Gauzak onelan diranean, zeñek izango dau sendagille eta ospitalengan uste onik? Sendategi baizik, erioz-tegi gertatzen dira ospitalak: matadero utsak... Eta sendagilleak, korridetako puntilleroak.

\* \* \*

## GAISOARI ESAN

Gizaki-erara ilteko eskubidea eskatzen dabe giza-emakumeek eta era orrek gaixoak bere egoera jakitea eskatezen dau; baita larria bada be. Ez dau iñork eskubiderik gaixoari bere egoeraren egia ukatzeko. Berak bere egoeraren barria jakin bear dau: orretarako eskubidea badau eta ez dago eskubide ori ukatzerik... Ezer jakin gabe iñor ilten iztea, ez da jokabide zuzena. Eskubide ori berea dau eta bere izateari dagokiona da.

Noiz, zelan eta zeñek berri emango dautson, ori beste arazo bat da. Neurriak artu bear gaisoaren gizatasunaren neurri eta erara, apurka edo bete-betean esateko: baiña, dana dala, egia esan. Ez dagigula beste aldera bialdu, ezeren berri barik.

\* \* \*

## ZELAN LAGUNDU

Maitasunez eta kristau fedez jokatu bear da. Maitasunez eta otoitzez. Otoitz egiten lagundu. Aldamenean egon, eskutik eldu eta laztandu; beraren aide eta berarekin, berak aldauen eran, otoitz egiñez...

Ori bai dala ondo ilten laguntzea.

Gaurko kristauok, orrelako oiturak aztuta gabiltz.

Gaisoaren aurrean zutunik errenkadan, guztiok larri dagoanari begira egotea, ezer egin barik, ori laguntza eskasa da. Orretarako sukaldean egotea, obe. Aldiko bat naikoa da, berak besterik eskatzen ez badau.

Bat orrek lagundu deiola aldamenetik. Txandaka; ez bakarrik itzi.

*Eriotz Ona* bide orretatik etorriko da. Eutanasia, barriz, *Erailtze Ona* gertatuko da.

ARRINDA TAR ANES

# BERTSOETAN

## GOGOA

Nire gogoa ispillu bat  
izan oi da, une bereko  
irudi arginabarrakaz,  
biotza artuta eredutzat.

Egitasun ikuspegizko  
oldoz-mintzo, izpidurakaz  
jantzia, gurarituriko  
gizatasun egiturakaz.

Beti, bai, bizitzaren alde,  
beren poz-aldi ta, nekeakaz  
beti zut, goiz ta arratsalde,  
oi diran amets, ardurakaz.

Orra ba, nire izakuntza,  
olatubera or dabillen  
euskaldunezko gogo baten  
itxasoaren ganeko bitsa.

Izangurazko bizimenez  
igitzen dan lurrun, abotsa,  
gogo bizikor, maitasunez  
jazo bai, gora, jazo biotza!

MUNIATEGI-TAR SABIN

## AMETS ILLA

Atzamar puntetan  
ebilkidan  
ene biotz oni erion  
itxaro moltzoen  
amets doakabea.  
Ta gauaren atarira nintzan  
lotsaz beterik  
neure gurari uztuok  
obiratzen illunen altzora.  
Pozarren nenbillen,  
ago bete izarrez,  
—lurrenontzi arimea—  
Euskadiko ibarrak zear  
aizea intsentsuz  
usainduko asmoz.  
Nik uste erreza zala  
gure erri onen obauba  
emeen eresi zuria  
ezpanetan ariltzea.  
Ta asi nintzen  
itzak biribiltzen  
eta zer?  
Odolen dardara gorriak  
ito eustan, jayo orduko,  
ene ametsen goizbarri zuria.

A. BIDAGUREN

## ESKUTITZA

Ez naz Zuekin, ez, aitzu,  
Neure senide maitiak  
Lanak dira ugaritu  
Eta gitxitu astia.

Gasteiztik Madrillera,  
Españatik Euskadira,  
Alan da nire bixiera,  
Ez dakit ziur zeren billa.

Baña ixildu gaitezcan,  
Begira izarrak zeruan  
Jesus ta Maria argitzen,  
Jose pozez dago onduan.

Gabona da elizetan  
Gosea toki azkotan,  
Gorrotoa biotzetan,  
Guda gure euskal errian.

Artzain txiro apalak  
Dira Jesusen adiskide,  
Gutzat diru eta janak  
Dira azkotan bixibide.

Zatoz, Jesus, gugana,  
Poztu ta onetsi gagizuz,  
Gixon ta Jainko zarana  
Siñesmena gudan piztuz.

Eta nire sendi ona  
Pozez gaur bete egizu,  
Emoiozu zoriona  
Zeure eskuan beti eukizu.

PATXI ARRAIBI

## NEURE 70 URTE BETETZERAKOAN

Aingeru batek —bizitzaren mezularia—  
zaindu ninduan neure ibilli oinazetuan  
eta ene utsaren kolko-kolkoko goruan  
irun eustan fede izkutuaren aria.

Gero, bere txoko kutunera itzulia,  
an bertan utzi nindun umearo galduan;  
abauba kantuz dabilkit lotarakorduan  
doinu gozo nere seaskatik dingilia.

Ametsa: jainkotar ameslarira naroa.  
Abotsa: beti amaibako abestaldara,  
Edo: ene asken loari deika doa.

Laumariko: ba naroa goiko altxorrera;  
maite argien aingeru ene bidekoa  
ba doakit ene jaiotza-zorra neurtzera.

UNAMUNO'RENA  
EUSKERAZ: A. BIDAGUREN'EK

## ERIO

Esna daitenean ire jainko baten loa  
itzuliko aiz sortu induan sabelara?  
Izango ete aiz leenagoko berbera?  
Desjaiotzaren erditze ire erioa?

Zer ete dok loa, esnaldi alper geldoa?  
Emen, zorionez, misterioa gurera  
gure bizitza mingarri onem laguntzera.  
Benetan bai ondo gordeta gure geroa.

Utzi datorrena lanbro artean itota,  
argi gitxiagoz ziurrago abil eta,  
ta oa lasai asken pausoa amotera.

Beste lur baten goiznabar gure arratsbera?  
Arima, oa lo eure bide illunera.  
Il... lo... il... lo... ala onenean ameseta.

UNAMUNO'rena  
EUSKERAZ: BIDAGUREN'k

# BALENTIN BERRIO-OTXOA (V)

DOMEKAR PRALLEA

GOIRIA

## LEKAIDETZARAKO

Txikitatik eroian Balentinek domekar pralle izateko gogoia ta abade zan arren ez zan itzali beragan gogo au geitu baiño.

Bildur zan bere gurasoak beartsuak ziran-da. Alan be zabalik ikusi ebazan atek bere asmoa aurrera eroateko Elbira bere arreba ezkondu zanean.

Gurasoen etxera ezkonduko zan eta laguntza andia izango aren gurasoak euren zartzaroan.

\* \* \*

## ARGI-BILLA

Lenbailen erabagi gura dau bere asmoa ta gogo-jardunak dagiz garillean.

1853- gko. urtea zan. Merey Aitari agertu eutsan bere asmoa ta onek aurrera eroan egiala esan eutsan.

Elorriora biurtu zan barriro. Iñazio Burguiñas bere aultorleari be bere barrua agertu eutsan.

Gogo-jardunak dagiz barriro be Loiolan bere autorleak aginduta.

Balentin gazteak ez dau ezbaierik, ez dau zalantzarik. Eta bere gurasoai bakarrik esan-da Okañara idazten dautso bertako nagusiari.

Nagusiaren baietza artzean dau. Iñori ez eutsan egin agurririk agirian; ez bere etxeokai, ez mojai, ez adiskideai. Antzuola, Galdakano ta beste erri batzuetara be joan zan. Bilbon zala Begoñara eldu zan. Andre Mariaren aurrean auzpeztu ta otoitz egin misio-arloan lagundu egiola eskaturik.

\* \* \*

## AGURRA

Ixilik eukan dana, ixilik bere asmoa, baiña alako baten janalditxo bat emon eutsen Monjen lokutorioan bere adiskiderik kutunenai.

An batu ziran beragaz Aita Mendoza, Iñazio Burguiñas, Saturnino Basauri, Iñazio Borda, Domingo Barrutieta beste batzun artean. Danak umore ona... ez ainbeste Balentinek.

"I Balentin —diñotso Barrutietak edari-edontzia eskuetan ebalabala— jakin geinkek nora ta noz uan?". "Bai adiskide: santu izatera naioak, Bizkaiak bat euki dagian."

Barre egin eben gozatsu danak urtera onegaz.

\* \* \*

## BIDEAN

Kalahorra ta Logroñora joan zan Balentin Okañara bidea artu baiño len angoi azken agurra egiteko.

Zartada andia artu eban Logroñoko Seminaria eltzean.

Ainbeste gomutaki etorkozan burura. Ain maite ebazan adiskideen artean banandu ebazan bere erloju bat, liburu batzuk eta abar.

Logroñotik Madridera joan zan.

Ordu batzuk bakarrik egon zan uri onetan. Au idatzi eban geroago: "Madrilletik sartu nintzanean lez urten neban; uri au badalakoa ta etxe ta jende asko edo diralakoa... beste barririk ezin emon neike".

## MADRID'etitik

Idazki-karta bat egin eutsan Madrilletik Damaso Amigo Fiton Logroñoko Seminarioko irakasleari.

Auxe diñotso: "Urte askotan lortu gura izan dodana lortu dot: Santo Domingoren jantzia. Lortu dot, Jantzi onegaz munduko zoriontsuena naz. Agur mundu, mundu gaiztoa. Ire zorakeriai bane egingo iautset konbentuko bakartasunean. Ire itsukeria ta ustelkeria negartuko ioazat. Indarrak artuko ioazat egunen baten Jaungoikoaren besoak eutsita iri burruka gogorra egiteko: burruka onek bakea ekarriko dauska, grñien aize gogorak bultz-egindako artegatasun-olatuak baketurik".

\* \* \*

## OKAÑA'n

1853-gko. urtillaren 13'n eldu zan Balentin Okañara domekar pralleen misioño-etxera.

Poz-eztitan egoan bere ametsak beteta ikustean.

Urte onetako urtillaren 27'n artu eban domekar jantzia, abitu zuria, beste 14 gaztegaz.

Auxe iñotsan amatxori andik egun batzutara. "Zure semia pralletxu bat eginda dago edurra lako abitu zuri bategaz".

Eta itzok beste idazki baten. "Emen gizon santuen erdian arkitzen naz; gau ta egun Jaungoikua alabetan dagoz; gaberdiyan bein baño sarriyago yaiki dira maitiñak kantetan eta Aingeruen ofiziva egiten eta berorren sabeleko seme bat bere bai berakin batean. Ay ama! zer zoriyoneko gaberdiyak arek! Berori lo eguan denporan berorren semia Jaungoikuari erregututen eguen. Amato: asarre ala adiskide gara? Ni beintzat adiskide naz berorregaz".

\* \* \*

## LEKAIDE BARRI

Danen eredu ta ispillu izan zan Balentin Nobixeduan, ez otoitzan eta jaungoikozaletasunean bakarrik, baita alaitasunean be; naizta mezadun eta bere lagunak baiño zarragoa izan, pelotan-da iolasten eban eurekaz.

1854'gko. azillaren 12'n egin eban bere lenengo profesalekaidekunda. 27 urte ebazan.

\* \* \*

## SANTU-BIZITZA

Iru urte egin ebazan Balentinek Okañako misioño-etxean. Teoljia-ikastaroak amaitu ta osotu ebazan. Anai-legoen Mai-xu be izan zan.

Ikasbide ona emon eban beti iru urte oneitan. Santutzat euken danak.

Au diño bere lagun batek: "Lurrean bizi zan baiña bere izketak zerukoak ziran; bere bete-bearrak baiño beste arduririk ez eukan".

Pozarren egozan beragaz nagusiak. Beretzat artzen ebazan beti lanik gogor eta apalenak. Iñor minduko eban barbarik egundo ez eban esango. Biotz zabalekoa zan danentzat, Pozarren egozan bai danak beragaz eta bera be pozarren danakaz, baiña barruan eroian *beroa* askatu gura dau. Mixioño-lurraldetara joan. Jaungoikoari arimak irabazi.

Amets au barruan eroian Santa Anako gelatxuan Aita Mendozak mixioñoi buruz berba egin eutsanetik. Lortuko ete dau bere guraria? Orain arte naizta eragozpen andiak izan Jaunak lagundu dautso. Mixiolari izatea zergaitik ez?

## GURE DON KLAUDIO

Aurtengo Pazku Igandean, Jorrailaren 3'an, gomuta berezi bat: Gabon ostean, Urtarrilaren 29'an joan jakun gure Don Klaudio.

Bere eriotzak, oraindik zirrara aundiagoa egin eustan beretzat gertaurik neukan zorion-postala bertanbera geratu jatalako: gure Kurutziaga'ko Kurutzea zan. JAIO-TZA'ren ZORIONA, GURUTZE'agaz eta BERBIZKUNDEAGAZ lotu eziñik, idatzi barik eta bialdu barik gelditu jatan azkenean!

Ostera Don Klaudio'k, Aberri Egun baten, San Anton'go Berbizkunde Mezan, jakin euskun, bai, ERIO-TZA ta BERBIZKUNDEA, gure aberri txikia ta Aberri Aundia alkartzen!... Entzuleoi, poza ta bizitz-indarra emoten!...

Gero, gaixorik Artxanda'n egoala, berak esan eustan "Gurutzean nago" arek, barreneraiñoko dardarea egin eustan. Baiña, gure gauzak olan izanik, egin neutson ikustaldi bakarra izan zan axe: Parkatu Don Klaudio!

San Anton bere eleizan, berak merezi ebanez, Don Klaudio'ren gurutzetik jatzitea eta Berbizkundera ospatu genduzan. Gotzaiña ta eun bat abaderen alkarmeza, San Anton'go abesbatza ta erriaren kantauak; txistulari ta bertsolariak... Bai, dana berak merezi ebanez! Eukaristia aretan, fedea iñoskun, Kristo'k gurutzetik kendu eta berbiztu ebala!

Ziurretik Don Klaudio'k, arako Kili-Kili'ko ibillaldi aretan lez, mini-morristxo aren barruan sartuta egoala egin gura ta urten ez, egin eban argazkiaren eguneko antzera, bere tranpaz beteriko ume onaren irribarre aregaz, zoriontsu ta pozik begiratuko euskun: oraingoan, betiko zorionaren pozaz. Orain, Don Klaudio, Iagundu guri!

Azkenean, guraiña ereserki ederrez azken agurra egin geuntsonean, danen artean niri, biotza geien ikutu, Don Klaudio berak, asmauriko arek egin eustan:

Begoñako Andra Mari  
Bizkaiko Zaindari,  
zure seme maitaleak  
zugana kantari!

MAITENA'K

### ALDAPE

Basetxe apala; mendi azpian  
geure enda zarraren abi barria;  
abi jatorra, saspi mutillak  
urte gitxitan, an jayo dira.

Gero neskatxa,

danen biotzak alaitzen dira.

i Geure arkondarak lisatuteko

orain arreba dogu etxian!

Urtaik juan, urtia etorri,

ezpeitk gabe,

aldatuko zan ango sendia.

Pilpil txikiak, larrosa ederrak  
bigurtzen dira.

Mutil koskorak, gizonak einda

bana banaka, aldatzen dira.

Bat izan ezik, gaste-gastia  
guda ankerrak eruanda, il zan.

Aldape zarra, zindo-baratza,

Jauna'rentzako bi, beresiak:

bat Karmeldarra,

misiolaria, juan zan bestia.

iAldape zarra, enda kabia,

Euzkadi atala agurgarrial.

UTARSUS





# AITITA MANUEL'ERI

## ETXEKO JAUN

Omenaldiak gizon ospetsuentzat izan dira beti. Edo obeto esanda, ospetsutzat euki doguzanentzat.

Eta zer gure Erritar arruntentzat?

Ainbat eta ainbat ixil ixilean joan jakuzanak izango ziran goratuak, euren ekintzetan ain apalak izan ez ba-ziran.

Euretariko bat gure aitagiñarreba Manuel.

Zenbat ikasketa izan doguzen bere inguruan giñanok.

Zenbat zor dautsagun.

Etxeko-Jaun, Euskaldun, Kristau bizitza berea.

\* \* \*

## ELBURUAK ARGI

Ez zan gogamen (idea) askokoa. Bear be ez. Baña eukazanak, zelan oiñarrituta. Elburuak (metak) bai argi ta garbi eukazala.

Ez giñan beti bat izan gogamen orreïn erabilliakaz, edo argiago esanik elburu orreitara eltzeko emondako eguneroko pausoakaz, baña bai berak aurrera egiten eban zintzotasunagaz areik betetzeko.

\* \* \*

## ETXEA TA ETXEKOAK

Etxeko-Jauna esan dogu. Eta noragiño bete eban zeregin ori. Ondo ulertzeko lenengo ta beñ irurogeitatiek irurogetamarreko urtetara egin bear dogu atzera, eta bera ezkonduak urte areitako ikuspegiagaz ikusi.

Sasoi atan gizona zan etxeko buru, eta bere agindupeko beste guztiak. Eta gogapen (pentsamentu) onek ariñetako ikuspegi bategaz ikusiaz, dana bere aldeko, bere eskubideetara eroaten ba-gaitu be, bere esan gurean sakontzen ba-dogu, zelako ardurak, nolako buru austeak dakarskuzen beragaz.

Eta ori bai ondo ulertu bala Aitite Manuel'ek.

Bere elburu nagusietariko bat zelan etxea eta etxeakoak zaindu.

Ez egoan jolas aldirik berarentzat, ez tabernarik, ez jokorik. Lana ta etxea.

Eta etxe barruan seme-alaben eziketa. Ez eban zeregin ori iñoren eskuetan itxi. Naiz ta ikastetxe onenak edo berarentzat onenatarikotzat eukazanak aukeratu, ez eban ez bere eskutik laga arlo ori.

Seme-alaben pozak eta mingoztasunak, ekintza onetan, bereak zirean geiago, naiz ta iñoiz bere ardura astun orregaz gazteak kikilduta egon nora jo ez dakiela.

Baña gaur zerbait ba-dira, zati on bat aitari zor.

\* \* \*

## EUSKEREA

Euskalduna be esan dogu. Naiko ixila zan Politika-arloan. Ez zan erreza jakitea nondik ebiltzen bere gogamenak atal

onetan, baña ogeitamalau urte bere gereizpean egiñ ondoren, bai argi geunkala gure barruan nondik joiazan aren bideak.

Bere seme-alaben euskera galdu zorian egoala Urian, ikusiaz, bai ariñ bialdu ebazala bere amaren errotara (euskerazko izen garbia eukan basetxera —BOLU—) gure izkuntza sendotzera.

Eta ezkongaietan genbiltzala adierazi eutsenean, bere itauna, ez aberatsa ete zan mutilla, ez ze karreradun zan, euskera ete ekian baño.

Ori garrantsitsuena berarentzat.

Onok bere ondorioz dana ona ekarriko ebalakoan edo. Biotz zabalekoa atzerritarrarentzat baña bere izate osoa gure Errian ondo oiñarrituta.

\* \* \*

## LANA

Eta azkenez Kristaua esan dogu. Ixili, bere beste ekintza guztietan lez, ori bai. Ez bere burua erakutsiaz.

Eta emen azalpen bat legoke obe, arlo au argiago ikusteko.

Bere gaztaroa oso gogorra izan zan. Amabi urtedun zala Begoña'ko Montaña Txakoliñean morroi. Gero Portugaleten.

Amazortzi urtedun, Bilbo'ko Portuan eun kiloko zakuakaz ikusiko dogu ikastetxeko jakintza aundi barik.

Baña or be ba-eukan bere gogamena. Lan ori itxi eta Osatetxera\_gabezko lanetara. Gabaz lan eta lan eta egunaz bederlatzi-amar urtetako umeakaz Institutora Batxilleraren sanera egitera. Lo? Jainkoak daki.

Eta lanean ekiñaz eta loari orduak ostuaz bere karrera amaitu.

Ez da arritzekoa ba, ainbeste kostatako diruari apur bat lotuta egotea.

Baña emen dago untzia.

\* \* \*

## LAGUNTZAILLE

Gatz egiten jakon eskua zabaltzea bai berarentzat eta bai etxeakoarentzat baña aide batetik bere siñismenak eroanda, eta beste batetik bere emaztearen bultzadari esker, zenbat on egindakoa.

Zenbat negar maiko ikusi geutson eskutitzen bat eltzen zanean etxera bai urko eta bai urriñekoren batek bialduta, bere esker ona agertuaz emondako laguntzagaitik.

Gure biotz-agur beroena zuri Aitite Manuel, Etxeko-Jaun, Euskaldun; Kristau izan zaran ori. Aita Jainkoaren Etxean zagozen orrek, Otoitz gure aide.

BITTOR ATXUTEGI

## NIRE JAIOTETXEA

### BARRU-ESKARIA

Bear dan lez zentzuna daben izaki guztiak, izango dabe maite euren jaiotetxea, eta ainbat geiago basetxea berorretan igaro dabelako umetaroa, baserrian izandako azkatasun ta biziera sindoa ez dalako iñoiz bere aztuten. Ni beintzat zaarrago ta geiago gogoratzen naz Pagola-bekoa basetxeaz, beratan igaro nebalako jaiotzetatik umetaroa ea amabost urterarte, neure guraso ta anai-arreba maitien aldamenean.

\* \* \*

### SAMINTASUNA

Lenago, errendu ninduen baiño lenago, sarritan joaten nintzan jaiotetxe ori ikustera, geienetan mendirik-mendi, eta basetxea ikusi, lenagoko auzokideakaz, Pagola-goikoak solasaldi bat egin da abar. Orain, berebillez igoten da bertararte eta, orretara joan nintzan orain aste batzuk eta, ia damututa geratu nintzan aldi bateko basetxe txukuna tankera artan ikusita: Atzeko aldea antziña erreta sasiz beterik eta aurreko aldea erdi-jausian. Ori ikusi ondoren, naita olerkaria ez naizen, urrengo olerkitxu oneik idatzi nituan samíñez beterik basetxeari begira:

Pagola-bekoa, jaiotetxe maitea  
zelan ikusi zaitugu,  
erdi jausita sasiz beterik!  
Lenagoko txukuntasuna galdu dozu.  
Zure ingurua izan zan garbitasun  
naita edozein aldetik begiratu,  
zu basetxe ori orrela ikusiteak  
gutziz egin nau samindu.

\* \* \*

### NON DAGON

Pagola basetxeak, Goikoa ta Begoa, Zornotza lurraldean aurkitzen dira, Galdakao'ko lurraldeak mugatuta, erri bi orrein erdi inguruan, bitxabal odoan aurkitzen da Kortederra etxe ederretik Ipar-aldera, txori-egazkadan bosteun neurki mendirantza, baiña, bidez-bide ia milla neurkiñean.

Pagola basetxetik urbil, zortzireun edo milla neurkin baiño lenago, bost basetxe aurkitzen dira bost erri-takoak: Marrageruena (Galdakano), Kortederra (Etxano, gaur Zornotza), 011eria (Gorozika gaur Gernika), Errotabarri (Zornotza), Lumiña (Lemoa), eta ez asko urrunago Arrizuzurigana mendia Larrabetzu eta Biztubieta gaiñean Bedia lurraldea. Ikusiten dan lez bost erri-tako lurraldeak mugatuta eta beste bi urrunbarik.



### ZELAI BATEN

Pagolak, Bekoa ta Goikoa, geiago ezagutzen dira Farola gaitxizenakaz, bearbada Pagola-bekoa'ra eldu baiño berreun neurkin lenago, goi-zeleikadatu baten, orain urte asko, berreun edo geiago, Ola-legorren bat egon bear zan bertan, ezagutu doguzan aztarrenak adierazoten dauskunez eta, beratako argia Boroa eta ia Zornotza'rik geienetik ikusiko zan lez, batezbere gabaz, ziurki ortik etorria litzakio gaitx-izen ori.

\* \* \*

Lenago, Pagola, ikuspegi bat lez izan zan. Bertatik Zornotza'rik geiena ikusten/zala baiña, gaur-egun beronen inguruko Pagola-alde'ko mendiak, lenago pagadiz eta areitez jantzita egon ziranak, piñuz ezalduta aurkitzen dira, gutziz baso biurtuta. Orretara ikusten dira beste euzko-basetxe asko be. Euzkera ta euzko oitura garbien kabi izan ziran basetxe maiteak, piztien ostendu leku aldatuta, gure jaiotetze maitea lez.

ALTUNA'TAR JOSU

### EURIA DALA BILBOTIK URTEERAN 1910'ko IRAILAREN 20'an

Agurka atorkidak ene goitik, xe-xea, gure mendietako arestiak apaintzen ta gure ibarretako artotzak ezotzen ditukan zirimiri geldu eta emea.

Nire agorraren errukiz ator, ernea, nere barneko mendi ta aranak ureztatzen. Eure lanbroz deustazak patu-ertzak lainotzen ta orrela eu betez joat nere fedea.

Ama Bizkai, zure besoetatik ba noa —ugari ta eze— Gaztekerri zimelara. Aurkituko an oizko besarkada beroa.

Gizonak, elduko ba da askatasunera bearrezko dau maitasun lokarri sendoa bidez-bide danean lagunekin batera.

UNAMUNO'rena  
EUSKERAZ: A. BIDAGUREN'ek

# URBASA

## EDERTASUNA

Sarritan esan oi dan lez, Euzkadi'ko mendiak danak edo geien-geienak atsegingarriak dira eta baita ezagugarriak be, euren edertasuna gaitik eta baita bat edo beste eurok daben edestiagaitik be. Zetan esan be ez onetari-ko bat dogu Urbasa mendidi zoragarria.

\* \* \*

## BIDEAK

Gure Aberrian zear ibili dan edozeiñek dakian lez, Urbasa ori Araba'ko Entzia mendi-lerroagaz mugatuta aurkitzen da, Naparra'ko Sakona, Olazagutia Uarte-Arakil Ipar-aldeetik eta, Larrona, Lizarra ta abar Ego-aldeetik dituala.

Iru bitxabal ditu alderdi ortatik igoteko eta beste ainbeste Ipar-aldeetik.

\* \* \*

## MENDIAK

Goira igon ondoren, ikusiko dogu zelan pizka bat ez-bardiña dan goi guztia, nai-ta badituan belardi zelaiak eta larren zabalak.

Ogei bat edo zerbaít kilometro geiago ditu luzeran anei edo kilometro bi inguru zabal. 920'tik 1.000 neurkin goraka, Ipar-aldeetik Betantz 1.238 neurkin goiti, Arzanbaratza 1.151 eta Akarreta 1.110 neurkiñeko gallurrek ditu. Eta, Ego-aldeetik Murube 1.113, Legunbe 1.113, eta Larragoiko 1.113 neurkin dituenak.

Dan-danak amiltegi erpiñak Sakon-aldera ta bai Ego-aldera, baiña, ez mendi-barrurantz.

Beraz, benetako ikuspegiak dira.

Lenago zerbaít esan dogunez, mendidi onen izakera zoragarria da aipatu doguzan belarbadi eta lar aberats orrein aldamenak sarri-askotan, inguru basatiak be ba'ditualako.

Eta esandako basa ta belardieen erdi-erditik asi Opa-kua gaiña Araba'ko lurraldean eta Olazagutia'tik Lizarra (Estella)'ra doian bitxabalaz bat egiten daun bitxabal polit bat igaroten da. Bikaiña benetan!

\* \* \*

## AMILTEGIAK

Urbasa onek baditu leza ikaragarriak be eta beste amiltegi ikaragari bat ilberako ilargiaren antzerakoa,

Lizarra'ko bidean ezkerrera belar-landatik bertaratuta, ur Ederra ibaiaren iturburuak bertan dirala, guztiz erpiña, jauzkera aundian ta beraz bildurgarria bertara jauzi ezketiño iñor bizirik geratu ezin leitekena.

Eta, orrixegaitik, emen izan genduban gudaketa mada-rikatuan, Naparrako pazista erailtzaleak daunbadaka, tiroka euren anaiak erailten ia nekatuta aurkitzen ziralako edo, amiltegi orretara eruaten ei-ebezan baituak eta, bultza eginda bertara jaurtin.

Baita beste askotan aipatu doguzan leza sakonetara be bai ainbat.

\* \* \*

## JAKINGARRIAK

Azpaldiz gengoan orren jakitun, baiña, irakurri egizuz argitaldu barri diran "Nabarra 1936"; "De esperanza at terror", idazti bi eta, bertan irakurriko dozu, irakurle maitia, guk esan geinken baiño geiago.

Urbasa zoragarria zikinduta...

BASA-JAUN.

## GURE IXILLEKOA

Ez geiago itaunik, neure isillekoa da; niretzat ixilleko itzel ta santua. bere aurrean estaldu daroat burua erruki-doluzko mantu baltzez; bere kolkoa.

Inguratzen dauan ezirik apurtzekoa ez nauzu; bizi onen zadorrei makurtua nabil, jakintzatic etsipenez aldendua ta begiekin, bular larri, Jainkora noa.

Ba da leze illun bat arimaren barruan, b<sup>er</sup>raren sakonean ukondo bat itzela ta bertatik iarotzea bai bildurgarri.

Basak auts daragizan eguzkia zeruan; gora begiok ta sutu gogoaren epela, guztiz ez arren nor zeran bearko ugarri

UNAMUNO'rena

Euskeraz: A. BIDAGUREN

## EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

II Ludi-Gudua amaitu ezkerro maiz entzuten dogu Urrun-Sortaldeko lurralde onen izena. Eta, gaur-egungo Korea'ren egoerak euskaldunoi zerbaite erakutsi daiegegulako, egoki iduritu yat idazlan ontan Korea'z itzegitea.

\* \* \*

### EDESTI-ZATITXO BAT

Buda'ren eta Konfuzio'ren erakuspideek moldatutako erria dogu Korea. Kristo-aurreko XII mendean sartu zan edestira. Orduan berenganatu bait eben txinatarrek, eta an Jaurreri bat eratu.

Kristo'aurreko IV mendean jausi zan Errege txinatarren agintaritzaz; eta arrezkero ez dau Koreak pake-une aundirik izan: Barrengo anai-arteko guduen erruz batzuetan; Txinatarren eta japoinarren erruz beste batzuetan.

\* \* \*

### ERLEJIÑOIA

Gure aroko 384'gn urtean sartu zan ara budatasuna eta Late-riaren legezko-erlijio biurtu. 1392'an ordea, konfuzitasuna izan zan legezko-erlijio egiña.

1904'eane, bere zaintzapean artu eban Japoin'ek Korea, eta 1910'eane oso-osoan bere-egin, sei urteko basa-borra gogorren ostean. Olagintzaren eta gaurkotasun orokarraren aldetik, ongarriz izan jakon Koreari japoinarren agintaritzaz.

Abertzaleek ordea ez erluztzen askatasunari ukorik egin, eta Txina'n, Erbestutako Jaurlaritzaz bat irasi eben.

\* \* \*

### LATERRI BI

II Ludi-Gudua amaitzerakoan, errusiarrek eta amerikatarrek artu eben Korea. Aiek, iparrean, Jaurlaritzaz komunista bati eman erluztzen sortzea, eta Jaurlaritzaz erkaltzale bateri berriz auek egoan. 38'gn Iudi-obo-etzarra izan zan bi Laterri aien muga.

Iparraldeko komunistek muga ori egoalderuntz igaro ebelako asi zan komunisten eta erkalazaleen arteko gudua. Txina komu-nista eta Errusi, Iparraldetik, eta Laterri Alkartuek Egoaldetik eraman eben gudu aren azta, pixua.

1950'eane asi zan borroka; 1956'eane egin zan erabateko pakea. Iparrean, komunistak gelditu ziran nagusi. Egoan, demokrazi edo erkalazaleak; izenez beintzat; arrezkero geienbat militar diktato-reen mendean egon bait da Ego-Korea.

\* \* \*

### GAUR-EGUNGO EGOERA

Zatiketa da gaur-egungo Korea'ren gaitzik makurrena. Demokrazi zaleak askoz geiago dira Korea'n militarzaleak baiño; aiek ordea, zatiturik dagozelako galdu dabez azkeneko bi auteskun-deak. Obeto esateko, zatiketa orrek eman dautso Roh-Tae-Woo diktatoreari gurenda.

Iru alderditan dagoz erkalazaleek banaturik. Iru alderdien buruzagiek, berdiña dabe izena: KIM. Eta berdiña dabe agintzeko guraria ere, bai Kin-Dae-Yung'ek, bai Kim-Yung-Sam'ek, eta bai Kim-Yong-Pil'ek ere.

\* \* \*

### KOREA ETA EUZKADI

Iru ba'dira Korea'ko erkalazaleen zatiak, lau dira Euzkadi'ko abertzaleenak. Euskadiko Ezkerra bereizi zan aurrena Eusko Gaitz aundia egin eutsan Euzkadi'ri zatiketa orrek, naiz Alderdia oso-osoan komunista izan, ortaz oartzeke abertzale demokraziale asko joan bait ziran Alderdi berrira. Gero, "Ortzi"-ren eragiñaz, Herri Batasuna irten zan Euskadiko Ezkerraren altzotik; ura bezain komunista. Eta, azkenik, Eusko Alkartasuna bereizi yako EAJ'ri.

Ain etsai gogorrez inguraturik dagoan Erri txiki batean lau zatitan! gagoz abertzaleok! ABERTZALEOK, esan dot, naiz EE

eta HB alderdi komunist amorratuak izan, alderdi oiei autarkia emoten dautseen jendeak ez bait dira komunistak, abertzaleak baizik; eta erkalazaleak, eta kristauak!!!

### JARDUNBIDE BARDIÑAK

Jardunbide oietan lendabizikoa, alkartasuna bir-eratzeta. iru zatietako koreatar demokrazialek itz eman dabe, Legebatzaren batera jardungo dabela. Ori egiten ba'dabe, iruen artean diktatoreak baiño autarki geiago bait dabez, aien esanera jaurtu edo gobernatu bearko dau Roh-Tae-Woo'k.

Emen, Euzkadi'n, EAJ eta EA ez dira oraindik ori egiteko gauza izan. Ori egin ba'eben, gaur ez ziran pesoetar espanizaleak Eusko Jaurlaritzan sarturik egongo.

— Bigarren jardunbidea: Egoki dan arazo eta une guztietan, ezaririk dagoan Jaurlaritzari laguntzea. Ori agindu dautsee iru alderdi erkalazaleek Roh-Tae-Woo'ren Jaurlaritzari.

Orrelakorik ez dabe beiñere ez egin ez pentsatu Jaurlaritzatik kanpora dagoen eusko-alderdiek. Alderantziz, al dabezan oztopo-arririk aundienak ipintzen dautsoez al daben une guztietan.

— Irugarren jardunbidea: Beren artean gogapenen arloan ezberdintasunik ez daben alderdiak ostera alderdi bat bakarrean ber-biltzea.

Euskadiko Ezkerrari eta Herri Batasunari orrelakorik ezin eskatuko dautsegu. Naiz beren autarki-emaillek komunistak izan ez, bi alderdi oiek komunistak bait dira.

Euskotar erkalazaleen lana, egi ori autarki-emaille aiei ulertaraztea da. Abertzale, demokraziale eta kristau zintzo diran euskotar jator batzuek autarkia alderdi komunistei emotea zentzurik ez daun gauza bait da!

\* \* \*

### AGINTARITZA TA ALDERDIA

EAJ'ren eta Eusko Alkartasunaren artean, ordea, gogoeta-maillan ezberdintasunik ez da. Sabin'en bidetik doazela diñote bi alderdietako buruzagiek. Non egon daiteke, ortaz, bien arteko ezberdintasuna?

Sabin'ek maiteago eban Alderdia —eta Alderdiaren batasuna—, agintaritzaz eta Alderdiko goi-maillan egotea baiño. Eta ez dakit, gaurko bi Alderdi auetako buruzagietaz ori bera esan daitekean.

\* \* \*

### ALKARTASUNA

Koreatarrek demokrazia garaille atera gura ba'dabe, naita-naiez, iru Alderdiak bat egin bearko dabez. Ori lortzeko, iru KIM eta aien inguruan agintaritzaren zati bat itxaroten daben buruzagien arrotasuna eta aundi-naia beste eragozpenik ez dabe izango. Badabe, base edo oiñarrietako alderdikideek zertan Ian egin. Korea gaixo artan!

Berdin euskotarrok. Gure Alderdi abertzaleok alkartu bearko doguz, Euzkadi aurrera atera nai ba'dogu. Ori, base edo iñarriak egin bear dau. Buruzagiek ez dabe sekulan orrelakorik egingo. Oiñarriak biurtu bear dauz buruzagiak ortara. Maite daigun Euzkadi, Alderdi baiño geiago. Maite daigun Alderdia alderdiko buruzagien gaindik. Naiz onako Jaun au edo alako Jaun ura benetan maitagarriak izan, maite daigun Aberria maite daigun Alderdia Jaun oiek danak baiño geiago.

## NIKARAGUA'RA

### BIZKAITIK

Bizkaian beti izan dira elburu bategaitik euren buruak ukatu eta Jesukristo'ren Ebanjelioari euren bizitzako indarrak eskini dautsoezan gizaundiak.

Oneitariko bat lez agertu jaku Leturiaga'tar Agustin, Arrankudiaga"ko parrokia itzi eta biotz zabalaz Nikaragua'ra joan jakuna, Jesus Barri Onaren zabalzaillea ango biztanleak geiago ezagutu dagien.

\* \* \*

### ERRITARREN LANAK

Abade on au Arrankudiaga'ra orain amaika urte etorri zan. Lenago apostolu laneko oinkadak Ugao'n emon ebazan, 1974'an abade egin zanetik, baiña an ba-egoan txanburua eta ez eukan zeregin aundirik mezea esan, errosarioa errezau, gaiso ta zarrai ikustaldiak egin, umeai kristiñau ikasbidea irakatsi eta eleiz-jakintza buruan erabilli baiño.

Eta gaztea zan lez, lan geiago nai eban. Zertan?

Burura etorri jakon Jesus bere Irakasle ona gazta-roan, Aitak emon eutsan gorengo eginkizuna, Barri Ona zabalzea eta mundua ber-erostea, egin baiño lenago arotz-lanean ibilli zala, eta bera be asti-aldietan lan onetan ibiltan asi zan, "eleiztarren eta erritarren zeregin, neke, ardura izerdietan eskuartu egian".

\* \* \*

### ARRANKUDIAGA'N

Otoitz egin eta lanik ez, edo, bardin dana, sinismena egite barik, illa da edo naiago izan ezker, "Jaungoikoari otoitzean eta mailluagaz tunkutean", esaldi orreik abade gorputz-txiki ta urduriagan eragilleak izan ziran eta bere filosofi-zentzuna labur-labur agertzen eben.

Agustin'ek Arrankudiaga'ra eldu zanean lenengo egin ebana gizarte-etxea aurrera bidean jartea izan zan, antxe erri zeiazen jakintza era atsegingarrian lortu daiten, guztiak deitu eta batuta.

\* \* \*

### AGURRA

Mezan agur egin eban abade onak, Agustin'ek, eta meza-ostean lareun lagunuen arteko bazkaria egin eben eta ortxe itzi eban izate sakonaren aztarna ta Iorratza.

Berak esan eban: "Arrankudiaga'ra etorri nintzanean erri au guztientzat izango zan toki bat jasoteko ustean egoan, euskerea, eresa, kirolak eta abar ikasteko elburua izan eta laguntza emon dagian. Eta guztion artean egin genduan".

\* \* \*

### JARRAIPENA

Maillua tunkutun bardiñaz dabil gaur gazte batzuen eskuetan, baserriak eta bizilekuak barriztaten, teilla-tuak eta etxe-aurreak atonduten.

"Nik ez nekian, diño berak, arotz-lana egiten, ikasi egin neban Ian egiñez eta alegiñez, ekiñez, igeltzeruak eta argiñak zelan Ian egiten eben ikusita, geure buruak egin genduzan argin eta orma-egille. Gure langille-talde onetatik Udaletxeak eskatu ebazan langille bik urten dabe eta beste bi sortu doguz. "Danba-Danda" taldea erriak bear dauzan langilleak sortzen dabil. Orain ni emen ez naz bearrezkoa. Gazteak ba-dakie zer egin, euren ogibidea aurkitu eta jarraitzeko".

\* \* \*

### BESTE LURRALDE BATERA

Eta orain, ain ongillea dan gure abade onek zer egingo ete dauku?

Argi ta garbi ikusi dau bere goi-deia: Beste lurralde batera abiatu eta otoitz-lanez Jesukristo'ren Barri Ona aldarrikatu ta zabaldu.

Baiña Ebanjelioko Barri Onaren gorengo irakasteak oiturazko oiñarriak bear ditu.

Zeintzuk? Gazteiz'ko arabarra zan Aita Vitoria'k asma-tu eban Erriarteko eskubideen gaiak eskatzen dauzanak edo Bilbo'tarrak diran Ellakuria ta Jon Sobrino'k azaldu daben Askatasunaren Teolojiak agertzen dauzanak.

Leturiaga'tar Agustin misiolari bizkaitarra igazko bagilean joan zan Nikaragua'ra bere Apostolu-lanaren oiñarriak jarri ta erutzen, Erriarteko eskubideak eta Askatasunaren Teolojiak diñoana beteten eta Jesukristoren Barri Onaren azia ereiten, mundu guztian Jaungoikoaren Erreiñua zabaldu daiten.

Bere eleiztar eta lagunakandik erantzun au artu eban: Noiz etorriko zara? Zeuri itxaroten gagoz!

LETONA'k

# ERGONOMIA

## BERBEA

Berba onek zer esan gura ete dau?

Agiri danez, ez da euskerazkoa, ez eta erderazkoa be, jakintsuena baiño.

Orain urte batzuk, izparringi ta jakituri-aldizkarietan irakurriz, berba ori aurkitu neban eta ara zelako azalpena emoten eben: "Langilleen lanak egokitzeari esaten jako ergonomia".

Ori irakurri nebanean berba au ez egoan erdeldu-nen iztegiatan. Orain egongo dala uste dot. Euskerazkoetan be bai bear ba'da.

ZER'en irakurleai berba orren esangurea agertzea bururatu jat.

\* \* \*

## ASMATZAILLEA

Ogeigarren gizaldi onetako jakituriak ba-daukoz bere sustraiak.

Soin-atalketa edo "anatomia" gaz nastauta eta zerbait antzeratuta, idazteko aurkiak gizonaren azur-egiturarako egokitu diran antzera ulertu bear da.

Nor izan zan ba "ergonomia" irakatsi euskun jakituna?

New York'en Ikastetxe Nagusian Biokimialari izan zan Tichauer irakasleak agertu eban ikas-gai ori, ergonomia izenagaz. Bere ardurarik aundiena asmakizun au gure gizarte mekanikari ta makin-langillearentzat balio-ko ta lagungarri izatea zan.

\* \* \*

## GIZARTE-ONURA

Tichauer irakasleak elburu eder bateri begiratzen eutson: Gure gizarte lantegiz beteak eginbear garrantzitsu bat daukola, lanerako tokiak egokitzea, laneko ezbe-rrak, iztripuak, urritu daitezcan, eta irabaziak lan bardiña egiñaz, ugariagoak izan daitezcan.

Orretarako biokimia ergonomiaren aurreko osagaia-ren antzekoa dala diño.

Ikastetxe Nagusian egindako test edo azterketeak agertu eban ikasten egozanak esku ta begien ekintzak eratu, alkartu ta bateratzea bear zala, oraingo urien baldintzetan erabilteko.

Lantegian gerturiko makiñadun norabidea erabilliz, beso-giarren indarra ezagutzen dabe, baita norabideak bear dauzan soiñeko lerro ta erak. Giarren erantzunak ikusteko, alkar lotuta, erantzunak ingian tinkatuta geratzen dira, elektroniko indarraren laguntzaz.

\* \* \*

## ETXEKO ANDRAK

Tichauer irakasleak ez daukoz aitzuta etxeko andrak bere billaketea egiten dauanean. Oneik egunero dabiltz giza-soin-atalketarako edo anatomiarako egindakoak izan diran euren erako tresnakaz.

Ara zer diñoan: "Onetan test-lerro batzukaz lantegi-ko jabeai agertu daiketsegu zelan marraztu ta egin bear dabezan lapikoak, txantxoletak, eta sukaldeko beste tresnak.

\* \* \*

## IDAZ-GELETARAKO

Idaz-geletarako aulkiak dira bere ardurarik aundie-na. Ber-beraren idaz-gelan idazkari bat dauko jesarrita, idazteko tresnea aurrean dauala. Idazkari ori azurtza utsa da eta jakitunak bere gurarien erara erabilten dau test egiteko eta azurren naiz giarren eragiñak egoera ezbarðiñetan aztertzeke.

Idazkiñakaz lan egiten dabenentzat marraztu dauan aurki-ereduak, euskarri txiki bat dauko atzean bizkar-azurrari eusteko eta au sendotu daiten.

Tichauer irakaslearen asmakizunagaz guztiak leitekez, bai lantegi txikietakoak eta bai lantegi ta laba aundietakoak.

EGILUZE

## EDURRA

Mendi ta ibarretan  
zuritasun gardenpean edurra  
ikusiz burututa,  
ikusiz gallurtuta  
zuriz soiñekotuta  
ain edertasun otzaren ikurra...  
iZein baltza, zein baltza dan  
izara zuriz jantzitako lurra,  
negu gorriaren aize baltz artean

nagositzen danean  
aren dizdira biotzge, makurra  
goibeldurazko aztundurapean!  
Eriotza da eriotza  
dauana izoztuten  
izadiaren biotza  
minduraz ondatuten.  
Goseak eta, aterperik ezak  
ondu dabez bai txorien pozak,

bizi izatezko itxaropenak  
egaz egiteko gogo, almenak.

Orain udabarria laster baten  
urre-urrean or daukagunean  
itxaropenezko bideak eskeintzen  
orritz-orritzko amesetapean...  
edur izoztuaren atzaparpean  
jausi dira betikozko betiren!

MUNIATEGI-TAR SABIN

## MILIA LASTUR'KO

Lastur Deba erriaren auzoa dozu.

Zestua, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Itziar ditu inguruan zulo baketsu orrek.

Gipuzkoan diran baztar bakan-bakan orreitariko bat. Mendiak ingumarian.

Bakardadean.

Ara ez da oraindik kontaminaziñorik eldu.

Urte gutxi dira bide-zabaleko muturtxo bat luzatu zala, Itziar'aldetik Lastur'ko enparantzara. Enparantza edo zezen-plaza; Itziarren eta Lasturren enparantza zezen-plaza biurtuta dauke.

Enparantza oso txikia: taberna eta eliza alde batean, zezenentzako ikuillua bestean eta arri-esia bira guztian.

\* \* \*

Lasturko jaiak beti zezen-jaiak izaten dira. Edozein baserritan izango dozuz larrabeiak eta larra-zezenak. Gorriak eta motzak, latiñez ikasitekoak. Tolosa, Azpeiti, Ondarrabi, Urretxu, Deba, Zestoa eta abarren sokamuturrik edo zezenik izango bada, Lasturko zezenak bear. Sakatarrak baztar areitako nagusienak zezen-arazoetan.

\* \* \*

Itziar'tik Endoia'ra doan bidean sortzen da Lasturrerako adarra. Milla bederatzireun eta larogeita seian adar ori luzatu dabe enparantzatik Sasiola'raiño Bilbo'tik Donosti'rako bidearekin topo egiteko.

Lasturrerako bide-kurutzean daukazu Aldazabalene, baserri eder galanta. Karliten azken gerratean Santakruz abade gudariak izan ei eban bere gordelekutzat. Sakon dago etxea, Lastur sakonago badago be. Ez eban bista txarrik izan apaiz burrukalariak etxe ori bere gordeleku aukeratzeko; ez egoan bide-zabalik orduan andik Itziar'arte.

Andik oiñez berak eta bere mutillek ordu bete naikoa eben Deban, Zumaian, Zestuan, Izarraiztik beera Urolaren ibarrean, Elgoibarren edo Mendaron agertzeko. Bide-zidor guztiak ara joten eban eta andik urten. Basamortuaren erdian. Aukerako lekua bere burua gor-

detzeko eta bertatik inguru osoan bere zartakoak banatzeko...

\* \* \*

Lasturko alabe zan Milia.

Aita aberatsaren alaba. Aberatsa abere asko-duna da; Lasturko baserriak abere askodunak dira: aberatsak. Baiña, Milia'rena oso aberatsa zan. Milia Lasturretik Mondragoera joan jakun Peru Garzia de Oro jaunarekin ezkontzeko. Milia gazterik il zan, eta Peruk Marina Arrazola ezkondu aurretik ezagutzen eban. Milia il baiño lenen, Marinari ezkontzeko errekadua egin eutsen. Miliaren aizteari ez jakon atsegin izan Peruren jokabi-dea eta orixe agertzen dautso illeta-egunean bertso-kantari:

Zer ete da andra erdiaen *zauria*?

Sagar errea eta ardao gorria.

Alabaña, kontrario da Milia, azpian lur otza ta gañean arria.

Lasturrera bear dozu, Milia, aitajaunak eresten dau elia, amandreak apainketan obia; ara bear dozu, andra Milia!

Jausi da zerurean arria, arkitu dau Lasturren torre barria, edegi dio almeneari erdia; Lasturrera bear dozu, Milia!

Arren, ene andra Milia Lasturko, Peru Garziak egin deusku laburto, egin dau andra Marina Arrazolako; ezkon bekio, bere idea dauko.

\* \* \*

Garibay historiari mondrautarrak dakaz bertso oneik. Lenengo lerroan "zauria" izena azpimarratu dogu, itz orreri buruzko eztabaida dagoelako gaurko egunez. Garibayek orrela dakar eta Jesus Maria Leizaola, gure bigarren lendakariak be bai bere Obras Completas bigarren alean 21'garren orrialdean. Alan be, askoren iritzian eta nerean ere bai, "zauria" ez baiño "saria" bear leuke izan.

## ELERTIA

Zer ete da andra erdiaen *saria*?  
Sagar errea eta ardoa gorria...

Emengo edariak txakoliña eta sagardoa ziran; orreïn ondoan ardo gorriak obeto laguntzen eutson aurra izan-dako emakumeari bere odolek barritzen. Gaur be erdi-tutako andreari "ikustaldia egiten jakonean ardo gozoa eroaten jako eta ez txakoliñik edo sagardorik.

Garibayek bertso orreïn azalpena be emoten dau , onelan:

—"Su padre baxaba gran hato de ganado para sus funerarias": "Aita jaunak eresten dau elia". Aitak jeisten dau (menditik eleizara) elia (talde aundia, abereena). "Gran hato de ganado" da "elia" Garibayren iritzirako eta itzulpen ori ondo datorkio Lasturreko izateari, abere-taldeak asko bait dira gaur be inguru areitan.

Aita jaunak abereak menditik jeisten ekarten dauzan bitartean "ama andreak apainketan obia", illobi edo sepultura. Sepultura-apainketa gureraño eldu da; orain ogei urterarte oitura zan sepultura gaiñetan ogia, argizaria eta beste janari mota geiago eskeintzeko ildakoen onerako, baita arkume, aari, zikiro eta beiak be. Miliaren aitak abere-taldea zekarren menditik eleizara illetak aundikiro ospatzeko asmotan.

1911'garren urtean ona zer ikusi eban Domingo Aguirre euskal idazleak Oikia'ko eleiz atarian: idi gizen bat eleiz-atarian lotuta, apaiz-manteo baltza gaiñean eballa, lau-librako ogiak bere adarretan sartuak. Oikia'ko erretorearen aita illaren eleizkizunetan ari ziran...

\* \* \*

Peruren arrebari ez jakon gogoko izan Lasturkoaren esana eta bat-batean emon eutson erantzuna:

Ez du Peru Garziak bearrik  
ain gatx handia apukaduagatik,  
zeruetako mandatua izanik  
andrari ok ala kunpli jasorik.

Gizon txipi sotil baten andra zan,  
ate arte zabalean oi zan,  
giltza porra aundiaren jabe zan,  
onra andi asko kunplidu jazan.

Ez dakigu zenbat luzeroko eztabaida izan zanik; baiña, Garibayek badakar beste bertso-sail bat Miliaren aiztearenak. Onelan diño:

Arren, ene andra Milia Lasturko,  
mandatariak egin deust gaxtoto.  
Zerurean jausi da abea,  
jo dau Lasturko torre gorea,  
eroan ditu ango jauna eta andrea,  
bata leen, gero bestea.  
Bialdu dogu zeruetara karteia,  
arren diguela geure andrea.

Mondragoeri artu deusat gorroto,  
giputz andra ok artu ditu gaxtoto:  
Iturriotz-kalean andra Maria Baldako,  
Arte-kalean andra Otxanda Gabiolako,  
Erribalean andra Milia Lasturko.

Zerk amatau ote eban andre-bersolarien argia? Illeteetan beti izan dau andre euskaldunak bere eginkizun bereizia sepultura gaiñetan egiten ziran lanetan; baiña, gero eta gitxiago. Ogei urte dira eleizetan sepulturak galdu dirala; baita emakumearen zeregiña be. Illeteetan bertsoak esateko oitura zaarra noiz aldendu ete zan gure artetik? Une aretan galdu ete ziran gure artetik andre euskaldun bertsolariak...?

Emakumeak ba-eban giro aretako euskal-gizartean bere nortasuna, aiztearen senarrari, danen aurrean, bere irizpideak eta arrazoibideak arpegira orrelan bota aal izateko.

\* \* \*

Nundik jaso ebazan Garibay jaunak bertso oneik?  
Abade baten agotik entzun ei ebazan, umetxoa zala.  
Juan de Oñate zan abadea, Mondragoen bizi zana.

Milia Lasturko ei zan bere amamaren ama.

ANES ARRINDA



## SUISSE TA EUZKADI

## LURRA

Sarritan esan oi da, alkarren antz aundia dabela Suisse ta Euzkadi'k. Eta ezin esan geinke ezetzik, gauza batzuetan beintzat: Lurralde menditsua da Suisse, Euzkadi'k baiño mendi goitiagoak, Europa'ko goitienak, betiko edurtzak dituzanak eta, beste lurralde guztiak orlegiak.

Bai-ta ba-dabe antza aintziñako oituretatik artutako, euren legeetan eta, orrein bitartez eurak daben erri-agintzaz da abar.

Bearbada lenago izan genduan euzkotarrok suissetarren antza geiago, lanerako euki genduan zaletasuna gaitik be. Ez ainbeste gaur-egun, bearbada laterarren oitura asko geuregandu doguzalako, iñon diran oporke-tak, garraxi a ixkanbillak.

\* \* \*

## LANGILLEAK

Suisse'tarrak langilleak dira, etorkisunean aurrenengo maillan diarduenak. Egia da eurak euren burujabe dira, ez dagoz beste laterriren menpean, euzkotarrok aurkitzen geran lez, baiña, eurak azkatasun ori jagoten dakie erri-agintzaz eta jakituriz.

Pizka bat baiño geiago atzerri oituraz kutzatuta aurkitzen garan aldi onetan izango ete gintzakez euzkotar-rak gai Euzkadi'gaz beste ainbeste egiteko?

Gaitx izango litzake beste jokabide bat, geure nortasun egokiagoa adierazoten ez dogun arte.

\* \* \*

## GARBITASUNA

Orain urte batzuk egon gintzazan Suisse edo Sui-za'n, Ginebra'n, Lenman zingira garbi zabalaren ondo-

ko uri aundian, Berna laterriko uriburuan, Lausane ta Zuritx uri zabal lantegitsuan, euren izeneko zingira zabala aldamenean dabela eta, azkenez Luserna, beste egun da erdi igaroaz Alpes mendiak zear Itali'ko Milan'era elduteko.

Orduantxe ikusi genduan ze txukun jagoten daben suissetarrak euren uri ta lurralde guztia: dana da lorea, baratz zabalak danak loraz beterik, orduerarte iñoz ikusi ez genduban lako garbitasunaz jagonda.

Ez da iñon errekin muzkil bat, ez ingi zatitxu bat ikusten. Alantxe mendirantza igokeran ikusi genduzan baserri ta basetxeak be. Eta, bardin bardin bertako oztetza guztia, garbi jantzita.

\* \* \*

## EREDU

Izango da gure irakurleen artean itanduko dauana, zergaitik asi ete garan Suisse'ri buruz idatziten, bearbada guk baizen obeto lurralde ori ezagutzen dabelako, baiña, zenbat eta loiago ikusiten dodazen gure erri eta urietako etxaide eta baster guztiak, ainbat geiago gogor- ratzen naz Suiza laterri orregaz eta baita be lurralde edo Ipar-aldeko Euzkadi'n dan garbitasun eta txukuntasunaz.

Guk ez dakigu nundik sartu dan edo nun sortu dan etxaide guztiak marrazki itxusiz zikinduteko oitura mada-rikatua, baiña, tamala emoten dausku marrazki irainkor orreik gure errietako orma eta etxe ta saleroste ondoan ikusiteak. Beti edo geienetan barriz, batzuk dira, politiku batekoak; lotsa gitxi ori irakatsiten emoten dabenak. Noiz arte jasan bear ete-doguz abo betean abertzaleak dirala esan arren Euzkadi zikinduten daben gizaki orreik?

ALTUNA'TAR JOSU

Udaberriko goiz alaitsua zan ta Gernika-ibaiaren ettzetik nebillen; lore baten gañean Galtxa-gorri ikusi neban niri deika:

—Aizu, Euskaldun, nora zoaz...?

—Ikusmira nabil, ta... zu nor zaitugu...?

—Ni, Galtxa-gorri naiz. Ez dozuz nire galtza gorriak ikusten, ala...?

—Mallukia ziñala uste neban...

—Mallukia...? Ja, jaiiii...! Txikia naiz ni mallukia izateko...

—Ta, zertan zabiltz zu, Galtxa-gorri...?

—Ni beti gizonaren morroi ta gizonari Iaguntzen...?

—Zertan...?

—Edozertan. Nik eta nere lagunak egiñ ez daiegun gauzik ez dago.

—Ezer, be ez? Ezer, be ez?

—Egia esateko... dan-dana ezin daiegu. Ona zer jazo jakun egun batean, Kortezubi'ko baserritar batekin:

Erosi ginduzan baserritarrak, soloan lan egiteko.

Agindu euskun lana egiteko. Lan amaitu ta an joan giñan barriro Ian eske. Emon euskun beste bear bat. Amaitu gendun. Beste bat... eta orrelan, lau aldiz. Bosgarrenean etorri giñan baserritarragana:

—Zer Ian egingo dogu?

Ez ekian zer Ian emon, beriala amaitzen ba'genduzan Ian guztiak. Orduan agindu euskun ura galbaian ekarteko. Asi giñan lanean, baña, alegiñak eginda be, ezin genduan urik ekarri. Gelditu giñan, azkenik, agindurik bete ezin gendulako...

—Orduan, gizona zuek baño azkarragoa da...?

—Baiña guk, berak baño indar geiago...

—Ta, zu niri Iaguntzeko be prest zagoz?

- Bai orixe...! Zertan Iaguntzea nai dozu...?

—Ni, Euskaldun gazte barria naiz, ta emengo barririk ez dakit...

—Nik emongo dautzut zuri Euskaldun zaarren barria.

### SANTIMAMIÑE

Ori esatearekin batera, loretik nire eskura salto egin ta, bere beatzakín Kortezubiko mendi bat erakusi eustan.

—Mendi baltz ori ikusten dozu...?

—Gallurrean ermita zuria daukana?

—Mendiaren izena Ereñusarre da, ta mendi orren egalean "Santimamiñe" koba-zuloa dago...

Artu nindun aidean, ta izugarritzko errun eroan nindun Ereñusarre mendira. An ikusi neban leize-zulo aundi bat. Leizearen atakan, lapa ta txirla, azalak ugari...

—Zer dira oneik? —galdetu neutson Galtxa-gorri'ri.

—Zera... zuen aurrekoak jandakoen arrastoak... Ez dozu, or beean, Gernika'ko ibaia ikusten...?

—Bai.

—Ta, an, beerago, itsasoa?

—Bai, ta.

—Ba, antxe batzen zituen lapa ta txirla oneik...

—Ta, ortik bizi al ziran...?

Orretzaz gañera, arboletako frutu ta igaliak, lureko bedar ta sustraiak be, jaten zituen... Baña, eizatik bizi ziran batez be...

—Eiztariak al ziran...?

—Bai.

—Ta, zer arrapatzen eben eizan?

—Pizti ta abereak: zezenak bezela, bisonte, basauntz, zaldi, basurde ta beste asko be bai...

—Bisonteak...?

—Bai, bisonteak be, bai... Orain emen ez dago bisonterik, baña, orduan ba'ziran Euskalerrian...

—Ori, ipuifien bat izango da...

—Ipuiña...? Etorri kobe barrura neugaz...

Sartu nindun leize-zuloko illunpe artara. Biztu eban krisa-llua, ta, barru-barruan, ezkerreko ormatik gora, kuarto txiki batean sartu giñan biok.

—Enee! orreik, zer dira...?

—Zuen aurreko Euskaldun zaarrak egindako marrazkiak.

—Zenbat urte, egiñ zituela...?

—Amabi milla urtetik gora... Ezagutu nituan euskaldun areik. Zuen antzekoak ziran...

—Ta, arek aalmenik ba'eben orrelako marrazki egoki ta ederrak egiteko...!?

—Alan dirudi... Ara emen, aitatutako bisonteak... Ikusten dozuz...?

—Bisontekin batera, beste pizti batzuk be ikusten dodaz. Ara, artza ta basauntza, be....

—Ipuiñak al dira...?

\* \* \*

Txoraturik nengoan marrazki arei begira. Preistoriko Euskaldun areik ez ziran beti lo egon... ez ziran nola-naiko artistak izan...!

—Aizu, Galtxa-gorri, ta piztien marrazkiak zergatik egin zituen orrelako toki ezkutuetan...? Or kanpoan, argia dagon tokian, egitea ez al zan obe...? Jendeak obeto ikusiko ebazan.

—Baña, irudi orreik ez ebezan egin jendeak ikusteko...!

—Zertarako, orduan...?

—Euskaldun arein elizatzokak ziran zulo oneik...

—Elizak be, ba'zituen...!

—Elizen antzekoak... Eizara urten aurretik, Ieizara etorri, ta leizako illunpe onetan egiten zituen euren otoitzak, pizti onein aurrean...

—Abaderik ba'euken otoitzak egiteko...?

—Aztiak ziran arein abade. Eta, otoitzak egiteko, mozorroz jazten ziran.

—Iñauteri ta Karnabalak al ziran ba, mozorroz jazteko...?

—Euskaldun zaarren aztiak mozorroz, jantzita aztikeriak egiten zituen euren koba-zuloetan; Zuek, barriz, Iñauterietan, astokeriak egiten dozuez galantak...

—Ori be olan da ta eziñ ukatu... Baña, mozorroz jaztea orduko gauza izango da...?

—Bai, orduko oituratik datorrena da... Baina ori zertarako zan, aitzu jatzue.

## JUANTXO-TXIKI SINISBERA (13)

*Bizitzako gora-beerarik ez* dakillako da Juantxo-txiki ain sinisbera. Esandako guztiak sinisten ditu zalantzarik gabe. Batez be bere gurasoengan dau uste oso-oso: eurak aiñakorik besterik iñor ez munduan.

Aundienak, indartsuenak, bizkorrenak, jakintsuenak, aberatsenak beti, Juantxo-txikirentzat, bere gurasoak. Beste edozein baiño geiago. Bere usteetan, beintzat.

Sinistuko dautzu esaten dautsazun guztia.

Ara zer gertatu jatan Juantxo-txikiren arrebarekin:

—Baiña, Anetxo, zergaitik egin dozu oker ori?

—Oso gaiztoa naizelako.

—Zu ez zara gaiztoa.

—Bai, oso-oso gaiztoa naiz!

—Zelan, baiña...?

—Danak orixe esaten dauste, amaxok be bai.

Amatxok esan ezkeru, Anetxok sinistu; eta, sinistu ezkeru, okerrak egin bear. Nai eta nai ez. Amatxori arrazoia emon bear. Amaren esanak beti izaten dira egi; beraz Anetxo gaiztoa zala sinistuta egoan eta gaiztoa izan ezkeru, gaiztakeriak egin bear. Orra zer korapillo!

\* \* \*

*Juantxo-txiki ona dala* pentsatu eta berari esan. Ona dala sinistu erazi. Onbide guztiak beregan dituala esan eta onbide orrean neurrian jokatu bear dauela munduan. Ori sinisten dozula, agertu umeari.

Ausartsua izatea nai dozu Juantxo-txiki? Ausarta dala esan eta ausartsu jokutzen saiatuko da. Ona dala esan eta ondo jokutzen saiatuko da. Ez sekulan esan gaiztoa danik.

\* \* \*

*Umetxoak okerrik egiten badau,* ez pentsa gogo okerrakin gelditzen danik betirako. Okerra egin dau, baiña damutu jako. Aaztu be bai. Argaltasunaren fruitua izan dau oker ori eta ez gogo gaiztoarena.

Oker egiten dauanean, itz gozo batek mesede geiago egingo dautso esarre bizitik sortutako belarrondokoak baiño. Aurpegiko eta zapladako orrek biotza mingoztuko dautso Juantxo-txikiri; ohea da, gaizki egin dauela adierazi eta zergaitik dagoen gaizki egindako ori azaidu.

Baiña gozo, eta arrazoi-bidean eta jipoika eta garrazika egin barik.

\* \* \*

*Ondo portatzen danean* goratu zure umetxoa. Txaio egin. Baiña gora eta beerako itzak euren neurria dauke. Geiegizkoa txarra izaten da.

Beti geiegizkoan ibilli ezkeru, azkenerako ez dautzu kasurik egingo.

Neurritsua izan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2. dcha. BILBAO-1


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**